

BEZEROEN SEGMENTUA

Gure empresaren target nagusiei dagokionez, hainbat taldeei bideratutako produktua da. Lehenengo target nagusia asko bidaiatzen duten pertsonak dira. Hauek bidai bakoitzean hotelak edo hauen antzeko geldiguneetan geratzen dira eta dirutza bat gastatzen dute, beraz, Sleep & Go-k ekaintzen duena Parada izeneko oherik gabeko hotel/alberge merkeagoak erabiltzea da (Parada establezimentuak gure empresak ezkeintzen duen beste zerbitzu bat da). Bigarren target pertsonala kanpinetara asko joaten diren jendea da. Hauek lo zakuetan egiten dute lo, eta hauek ez dira egokiak ez bizkarrarentzat, ez ondo lo egiteko. Gure empresak hobeto lo egiteko ahalmena eskaintzen die kanpisteei, honetaz gain fundamentuzko ohe batek izango lituzkeen onurak kanpinetara, mendira, hondartzara... eramateko ahalmena ere eskaintzen dugu.

Arlo pertsonaletik kanpo target handienetako bat hospitaleak izango lirateke. 2020ko pandemiaren momenturik latzenetan hospitaleetan ez zeuden ia kamillarik. Honek pertsona asko berandu edo beranduegi tratatzea eragin zuen. Gure empresak ohe-tolesgarriak masan salduko liozke hospitaleei, produktua kopuru handitan erosterakoan %10etik - %15erako rappel-a edo deskontua aplikatuko da. Larrialdietan, krisialdietan edo gerretan dauden herrialdeak ere izango lirateke target potentzialak. Hauei gure produktua mailegu moduan emango genieke errefuxiatuei, zaurituei eta bestelakoei laguntzeko eta hauen egoera hobetzerakoan emandako produktu kopuruaren arabera aurrekontua egingo da, hospitaleei egindako rappel-a egoera honetan ere aplikatuko da. Azkeneko kasu hau hondamendi klimatiko bat pasa den herrialde, eskualde eta hirietan ere aplikatuko da, baina kasu hauetan produktua ez da egoera hobetzerakoan ordainduko, erosketa egiten den momentuan baizik. Hemen ere %10etik - %15erako rappel-a aplikatuko da. Empresa pribatu batek gure produktua masan erosten badu rappel-a txikiagoa izango da, %7 - %10 bitartean. Rappel guztiak 29000 edo 100 unitatetik gora aplikatuko dira.

Gainera, badakigu bizkarreko arazoak dituzten jendea dagoela eta baliteke hauek duten lasaitasuna produktu berezi baten premian egotea dela. Hauentzako gure web orrian salduko ditugun modelo bereziak egongo dira. Modelo hauek masan produzitutakoak baino garestiagoak izango dira, hala ere, ez dira askoz ere garestiagoak izango. Enpresa bezala gure targetak erdi mailako eta behe-erdi mailako pertsonak izango dira, hala ere, maila erdi-altuko erosleek kalitate altuko bertsio pertsonalizatuak erosi ahal izango dituzte Sleep & Go-ren web orrialdean.



Honetaz gain, kontsumitzaileek arazoren bat baldin badute gure produktuarekin, hau da, produktua puskatu egiten bada edo antzeko zerbait gertatzen bada, produktua itzultzeko aukera izango dute (behin eta garantia amaituta) eta modelo berdina berriro erosten badute %5 eko deskontua egingo da. Hau aplikatzeko produktua fisikoki erosketaren ordainagiriarekin itzuli beharko da.